

Kaixo Olentzero maitea !

Miren naiz, 10 urteko neska eta Santurtzin bizi naiz nire familiarekin : ama, aita, ahizpa Leire eta Blue txoritxo. Arrantza egitea aitarekin eta igandero familiarekin olibak jatea asko gustatzen zait. Amak bakarrik astean behin olibak jaten uzten dit ,beraz egunik onena igandea da.

Gabon honetan beti bezala idazten dizut, baina aurten gauza oso inportantea eskatu nahi dizut, nire aitona hobetzea. Aitona Antonio ospitalean dago, birus bat hartu duelako eta ezin du arnastu, makina bat dauka arnastu ahal izateko. Gustatuko litzaidake zuk nire aitona zaintzea, berarekin uda honetan bezala jolastu ahal izateko tiragomarekin. Iaz liburu bat irakurri nuen " Tino rompe bombillas", tiragomarekin dena apurtzen zuen mutil bati buruzko liburua zen , aitona Antoniori kontatu nion eta berak hurrengo egunean tiragoma bat egin zidan . Aitona onena da , nirea . Abuztuan herrian aitonaekin primeran pasatu nuen lehiaketak egiten, beraz nire nahia inportanteena aitona zaintzea da.

Aitarentzat eta amarentzat gauza bera eskatu nahi dizut: aitona zaintzea.

Bluerentzat, nire txoriarentzat, kaiola handi bat eta jostailu pilo bat.

Leirentzat perfume bat eta noski aitona ondo jartzea.

Eta niretzat, hasieran eskatu dizudana eta uraren oxigenadorea arrainak hartzen ditudanean arrainak ez hiltzeko.

Beno Olentzero, espero dut lan handia ez izatea eta gabon onak pasatzea. Musu handi bat.

Miren.

